

KONPOSTA (LURRETIK LURRERA!)

Konposta egin nahi duzu? Baratza edo lorategia baduzu zure etxean bertan konposta egin dezakezu! Zuk sukaldeko, baratzeko eta lorategiko soberakin organikoak konpostagailura bota beharko dituzu. Gogoratu hosto lehorrak, egur naturalezko zerrautsa eta txirbila, lastoa eta inausketa hondar trituratua erabili ditzakezula konpostagailuko hezetasuna orekatu eta aireztapena errazteko.

Beharrezko materialak: Konpostagailua, aireztatzailea eta etxean konpostatzeko gida.

- **Materia egituratzailea:** Eskatzen duen erabiltzaile orori materia egituratzailea emango zaio. Materia egituratzaile gehiago behar baduzu, Tolosako San Blas garbigunean duzu eskuragarri.

Konpostaje prozesuaren adierazleak

ADIERAZLEAK	ZERGATIK GERTATZEN DA?	ZER EGIN BEHAR DUGU?
Nahasketa lehorra dago	<ul style="list-style-type: none">● Konpostatzeko material gutxi dago● Material lehor gehiegi dago● Gehiegi nahastu dugu	<ul style="list-style-type: none">● Hondakin organiko gehiago bota● Material hezea gehitu edo ureztatu● Gutxiagotan nahastu
Nahasketa hezeegia dago	<ul style="list-style-type: none">● Material heze gehiegi dago● Nahasketa euriak busti du edo gehiegi ureztatu da	<ul style="list-style-type: none">● Material lehorra gehitu eta nahastu
Nahasketak usain txarra du	<ul style="list-style-type: none">● Oxigeno gabezia dago● Gehiegizko hezetasuna dago● Nahasketa trinkotu egin da	<ul style="list-style-type: none">● Material lehorra gehitu eta nahastu

<p>Nahasketak amoniako usaina du</p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Material heze gehiegi dago (nitrogenoa) ● Belar-geruza bat egin da 	<ul style="list-style-type: none"> ● Material lehorra gehitu eta nahastu ● Belarraren zati bat lehortzen utzi eta pixkanaka bota materia guztia nahastuz
<p>Lizuna edo tela zurien agerpena</p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Onddoen hazkuntza gertatu da, mikroorganismoen aktibitatea dago 	<ul style="list-style-type: none"> ● Ez kezkatu, seinale ona da
<p>Fruta-eulien agerpena</p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Materia freskoa gainaldean dago ● Gehiegizko hezetasuna dago 	<ul style="list-style-type: none"> ● Nahastu, materia freskoa gainaldean gera ez dadin eta materia egituratzaile pixka bat bota goialdean organikorik gera ez dadin
<p>Larben agerpena</p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Gehiegizko hezetasuna dago ● Materia trinkotu da konpostagailuaren zonalde batean 	<ul style="list-style-type: none"> ● Material lehorra gehitu eta nahastu, homogeneo geratu dadin